



**Arartekoaren 2016R-2364-15 Ebazpena, 2016ko abuztuaren 22koa. Horren bidez, Mezkiako Batzorde Administratiboari gomendatzen zaio lursail pribatuen okupazioa legeztatzeko.**

### Aurrekariak

1. (...) jaunak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen Mezkiako Administrazio Batzordeari eskatu zion dokumentazioa dela-eta ez duelako ezta erantzunik ezta dokumentaziorik ere jaso. Aipatutako kexa hori berea den (...) zenbakidun ordezte-finkaren zati bat inolako titulurik gabe okupatua izan zelako aurkeztu zuen. Gaur egun, finka horiek (...) eta (...) dira, 1 industrialdekoak.

(...) jaunak, bere emaztearekin batera, 2011n jaso zuen finka eta lursaila ixteko baimena eskatu zuen. Une horretan bertan onartu zen lursailean Jabetza Erregistroan jasota ez dagoen bide bat dagoela. Mezkiako Administrazio Batzordeko presidentea itxieraren aurka agertu zen, proposatu zen itxiera ez zelako egokitzen lursail bilketaren bideen itxieran zehazten ziren neurrietara hain zuzen ere. Jabeak lurzoruaren egoera fisikoa kontuan hartuta itxi nahi zuen lursaila, hau da, eginda zegoen bidea itxieratik kanpo utziz eta egin gabe zegoen baina mugarriak jarrita zituen bidea bere lursailean sartuz.

Pertsona honen arabera, bere finka titulu gabe okupatu izanari irtenbidea emateko erabakiak falta zirelako, 2015eko uztailaren 14an Mezkiako Administrazio Batzordera zuzendu zen informazio eta dokumentazio eske; besteak beste bere finkan irekitako biderei buruz, ibilbide berria egiteko hartutako erabakien eta jabeen adostasunari buruz eta bidereen titulartasunaren erregistroko izen-emateari buruz informazioa jaso nahi izan zuen.

Proposatutako itxierarekin zeuden desadostasunak ikusita, interesatuak eskatuta 2011ko abenduaren 13an Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenak egin zuen txostenean jasota zeuden datuak kontuan hartuz eskatu zion aipatutako informazioa Administrazio Batzordeari. Dokumentazioa ikusirik eta egiaztapenak egin eta gero, honakoa ebatzi zen txostenean:

- Los caminos creados y ejecutados durante la Concentración Parcelaria que se llevó a cabo entre los años 1968 al 1970 son propiedad del Concejo de Mezkiá.
- Los caminos de acceso a las fincas de reemplazo nº (...), nº (...) y nº (...) no son caminos de servidumbre, sino que se trata de caminos amojonados y por tanto de dominio público.
- Que en el año 2002-2003 se realizó un camino alternativo a los creados durante la concentración parcelaria con el objeto de dar acceso a las parcelas (...) y (...), resultando que la ejecución de dicho camino alternativo fue realizada sobre la finca nº (...), propiedad actual del reclamante.



- Esta ocupación no fue formalizada, resultando que la finca nº (...) se encuentra hoy en día atravesada por un camino amojonado sin ejecución (resultado de la concentración parcelaria) y con otro que se realizó en el año 2003, de facto.

Ondorio horien aurrean eta adostasunezko irtenbide bat lortu nahian, txosten hura sinatu zuen teknikariak honako proposamena aurkeztu zuen:

*"1. Realizar la modificación catastral correspondiente en la zona afectada por los caminos, concretamente en las fincas (Nº..., Nº..., Nº..., Nº ..., Nº... y Nº...).*

*2. Realizada la modificación catastral, analizar la ocupación de superficies que existe por los caminos y proceder por acuerdo de las partes afectadas, a normalizar el acceso a las fincas nº (...) y nº (...) de concentración parcelaria, conforme a los acuerdos adoptados, atendiendo a las disposiciones administrativas necesarias para llevarlos a efecto, pudiendo ser las siguientes:*

*a) A través de compensación económica al propietario de la finca nº (...), por la superficie ocupada en su finca, como consecuencia de la ejecución del camino nuevo de acceso a las fincas nº (...) y nº (...).*

*b) Compensación al propietario de la finca nº (...) con superficie, proveniente de las fincas nº (...) y nº (...), según las opciones nº 1 y nº 2 que se indican en los planos adjuntos, a elección del propietario de la finca nº (...)."*

3. Kexaren edukia ikusirik, Arartekoak informazioa eskatu zion Mezkiako Administrazio Batzordeari, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruan eta egindako eskariak erantzuteko duten betebeharraren inguruko hainbat gogoeta ere helarazi zizkion.
4. Administrazio Batzordeko presidentek honakoa erantzun zion Arartekoari:
  - La Junta Administrativa no tiene abierto ningún expediente previo al respecto del camino.
  - El reclamante no acredita ningún interés legítimo, ni explica las razones por las cuales solicita dicha información.
  - Así y todo, tampoco acredita domicilio a efectos de notificaciones.
5. Erantzuna aztertu eta gero, Arartekoak berriz ere informazioa eskatu zion Administrazio Batzordeari, jasotako erantzunaren inguruan hainbat gogoeta helaraziz.
6. Bien bitartean, interesatuak Administrazio Batzordeari zuzendutako hainbat idazki entregatzeko saiakerak egin zituen, bai Udalean bertan baita ere Posta



Zerbitzuaren bitartez bidalitako gutun ziurtatu batekin, ez zegoelako presidenteari idazkiok entregatzeko modurik. Idazki horietan, modu formalean eskatzen zuen okupatutako metroak konpentsatzeko beharrezko erabakiak hartzeko edo adostasunezko beste irtenbideren bat emateko epeak gehiago luzatu gabe, nahikoa denbora igaro delako 2011.urtean arazoa planteatu zenetik.

7. Administrazio Batzordeko presidentek berriz ere Arartekoari erantzun zion, honakoa adieraziz: "*La sección de Concentración Parcelaria de D.F.A hacia el año 1973 les dejó a esas fincas sin acceso y debido a ello, esta Junta Administrativa en el año 2005 según consta en acta del Concejo llegó a alcanzar un acuerdo verbal con los anteriores propietarios y en beneficio de todos los propietarios de las fincas fue la D.F.A (concentración parcelaria) la que hizo el actual camino por erial en vez de por tierra arable como iba anteriormente. Como digo fue un acuerdo verbal el realizar la permuta pero sin embargo no se llegó a realizar todo el expediente administrativo. Cabe indicar que para la construcción del nuevo camino la Junta Administrativa también cedió terreno.*"

Horretarako, presidentek 2005eko apirilaren 23ko aktaren kopia atxiki zuen. Akta horretan adostu zen bide berria egiteko, orain Hoyo-ko bidea dagoen lurzorua neurri berdinak dituen bere lurzoruagatik trukatuko zela.

### Gogoetak

1. Mezkiako Administrazio Batzordeak onartu egin du aurrekarietan agertzen den bezala, kexagilearena den (...) zenbakidun finkaren zati bat okupatu dutela bere garaian onartu zen trukaketa espedientea formalizatu gabe zegoela. Okupazioak gaikuntza-titulurik ez duenez, Administrazio Batzordeak egindako ordezkio bidea igarotzen den lurzoruaren zatia legeztatzeko betebeharra du, eta ez lursail bilketaren tituluan agertzen den eta mugarriak dituen bidea.

Sortutako *de facto* egoera legeztatzeko, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapen teknikariak bidalitako txostenean adostutako irtenbide bat proposatzen da; kexagilearen finkaz gain, (...), (...), (...), (...) eta (...) zenbakidun finkak ere arautzea proposatzen du, lursaileko bilketa lanetan mugarriak zituzten bideetan ibilbideak aldatu izanak guztiei eragin zielako.

Lursaileko bilketaren emaitzaren titulua arabera (1973ko martxoaren 8an protokolarizatutako akta eta ondorengo erregistro-idazpena 1 -izen-ematea 1973ko irailaren 7koa- Mezkiako Administrazio Batzordea da titulu hartan aurreikusitako mugarriak dituzten bideen titularra, herri jabariaren ondasunen kontzeptuan.

Herri jabariko ondasunak preskribaezinak, enbargaezinak eta besterezinak dira (Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko apirilaren 2ko 7/1985





Legearen 80.artikulua). Beraz, ondasun horiek ezin dira zuzenean besterendu aurretik erabilera publikotik desfektatzen ez badira behintzat. Ondasunak desfektatzeko, Tokiko Erakundeen Ondasunen Arauak zehazten duenaren arabera (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua), kalifikazio juridikoa aldatzeko beharrezko espedientea izapidetu behar da. 8.artikuluak zehazten duen bezala, toki erakundeen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko beharrezkoa da horren bidez kotasuna eta legezkotasuna ziurtatzen dituen espedientea egitea. Espedienteak eskatzen duen legezko *quórum*-a izango du eta Udalbatzak hartutako ebazpenaren bidez onartu behar izango da. Horrez gain, informazioa aurretik publikoa egingo da hilabetez.

Desfektazioa lortzen denean, Administrazio Batzordeak zuzenean trukatu ahal izango ditu higiezin izaera duten beste ondasun batzuekin, beti ere trukatu nahi diren ondasunen balioa, balioa handiena duen ondasunaren % 40 baino altuagoa ez denean. Kontuan hartu beharko da baita ere besterendu edo trukaturiko diren ondasunen balioak urteko aurrekontuko baliabide arrunten % 25 gainditzen badu, Administrazio Batzordeak dagokion foru erakundearen baimena lortu beharko duela, Ondasunen Araudiaren 109. artikulua arabera.

Hala, foru teknikariak proposatutako finkak katastro-balioan arautu aurretik, Administrazio Batzordeak adierazi den administrazio espedientea izapidetu beharko du, aurretik kaltetuekin adostasunetara eta erabakiak hartzera iritsi eta gero, zenbait finkei eragiten dien egoera irregular bat izateagatik.

2. Bestalde, Ararteko erakundeak erreferentzia egin behar dio **informazio publikoa eskuratzeko eskubideari** eta interesatu nolakotasunari edota legezko interesik egiaztatzeko beharrizan ezari, baita ere Administrazio Batzordearen informazio zehatza jasotzeari.

Aurrekarietan adierazi bezala, Administrazio Batzordeak honakoa adierazi zuen: *"Este Sr. no acredita ningún interés legítimo, ni explica las razones por las cuales solicita dicha información"*.

Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea; hau da, administrazioarenak diren eduki edo dokumentuak lortzeko eskubidea, formatua edo euskarria edozein delarik, gardentasun, informazio publikoa lortzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. eta 13. artikuluen arabera, beti ere Legeak berak zehazten dituen mugak errespetatuz; muga horiek behar bezala azaldu beharko dira ezesteko oinarri bezala erabiltzen direnean.

Interesatuak eskatu zuen dokumentazio eta informazioa bakarrik Batzordeak hartutako erabakiei buruzkoa zen, kasu horretan bere finkaren zati bat okupatzeko egon litekeen izapidetutako espedienteari buruzkoa. Organo ordezkariak hartzen dituzten erabakiak publikoak dira, eta edozein pertsonak du horiek jasotzeko eskubidea, inolako justifikaziorik eman behar izanik gabe.





Bestalde, aipatu diren aurrekariak kontuan hartuta, ezin da inolaz ere ulertu Administrazio Batzordeak pertsona horrek ez duela gai horrekiko interesik erakutsi arrazoitu izana; agerian geratu da Administrazioak izan duen jokaera txarra, eskatutako informazioa eta jarduketa ukatuz, gainera jakinaren gainean egonik 2011tik arazo hori konpondu gabe zegoela, non Administrazio Batzordea kexagileak, bidearen egoera erreala kontuan hartuta, egin nahi zuen lursailaren ixtearen aurka agertu zen.

Horrez gain, azpimarratu behar da indarrean dagoen Legearen arabera, eskatzailea ez dagoela behartuta informazioa zergatik eskuratu nahi duen azaltzera. Beraz, azalpenak eman ez izana bakarrik ezin da erabili eskaera ukatzeko arrazoi bezala (Legearen 17.3 artikulua). Kasuan kasu, eskatu den informazioa eman edo ukatzeko ebazpenaren berri ebazpena emateko organoak eskaria jasotzen duenetik hilabeteko epean emango zaio eskatzaileari (Legearen 20. artikulua).

Laburbilduz, azpimarratu behar da Administrazio Batzordeak betebeharra zuela interesatuak eskatutako dokumentazioa emateko, beti ere informazio horren jabe bazen; informazioa ez izanez gero, eskatutako dokumentu batzuen kasuan adibidez, bidearen ibilbide berriarekin lurzorua okupatu izana arautzen zuen espedienterik izapidetu ez zenez, Batzordeak interesatuari esan behar zion ez zuela informazio hori.

3. Bukatzeko, erakunde honetan kexa aurkeztu duen pertsonak salatu du arazoak izan zituela Administrazio Batzordean eskariak aurkeztu eta entregatzeko.

Administrazio Publiko oro dago behartuta dokumentuen erregistroa irekita egongo den egunen eta orduen berri ematera, beti ere bizilagunek dokumentuak aurkezteko duten eskubidea bermatuz (herri administrazioaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.artikulua). Nahiz eta Udalbatzek normalean ez duten publikoari zuzendutako bulegorik, legezko betebeharra dute oinarritzko eskubide hori betearazteko sistema bat zehazteko, beharrezko bitartekariak eskuragarri utziz (fede-emaileak etxean entregatzea edo beste bitarteko egokiren bat).

Edozein kasutan, kexa izapidetu duen pertsonak salatzen duenaren arabera, ez da bidezkoa Administrazio Batzordeari Posta Zerbitzua erabiliz eta gutun ziurtatu bidez bidalitako mezuak ere ez jasotzea.

Horregatik guztiarengatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoarekin arabera, MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZORDERA luzatzen dena.





## GOMENDIOA

1. Dagozkion legezko izapideak egin ondoren, eta interesatuarekin egin beharreko negoziazioa egin eta gero, kexagilearena den (...) zenbakidun finkaren zati bat okupatzeari legezko irtenbidea ematea.
2. Dokumentuen sarrerak orokorrean erregistratzeko sistema eraginkor bat martxan jartzea, bizilagunei entregatzeko ordu eta lekuei buruz informazioa emanaz eta Posta Zerbitzu Publiko bidez bidalitakoak alde batera utzi gabe.

